

# EUSKADIN EROSKETA PUBLIKO BERDEAREKIN BAT EGITEKO<sup>+</sup> GAKOAK



Herri-baitza  
Sociedad Pública del

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA  
ETA ETXEBKITZA SAIAA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,  
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA



# ZER DA EUSKADIKO EROSKETA ETA KONTRATAZIO BERDEAREN PROGRAMA 2020?

Eusko Jaurlaritzak zehaztu duen jarduketa-esparru bat da, Euskal Sektore Publikoak erosteko eta kontratatzeko prozesuetan ingurumen-irizpideak gehitu ditzan.

2016an onetsi zen, 2016-2020 aldirako.

Helbide honetan eskuratu daiteke:  
[www.ihobe.eus/compra-publica-verde](http://www.ihobe.eus/compra-publica-verde)

## ZER LORTU NAHI DA?

- Administrazio eragingarriagoa eta eraginkorragoa ingurumen-baliabideen erabilerari dagokionez.
- Euskal administrazio publikoek era koordinatuagoan jardutea, baliabide publikoak hobeto aprobetxatzeko eta aukera eta sinergiak sortzeko.
- Koordinazio hobea merkatuarekin, erosketa publiko berdeak ekoberrikuntza erantsiko duela eta euskal enpresak hobeto kokatuko direla bermatzeko.

## NOLA?

- Eusko Jaurlaritzako, foru-aldundietako eta tokiko erakundeetako sailen eta erakunde elkartuen konpromisoaren eta ekintzaren bidez, honako hau lortzeko:
  - Aurrera egitea erosketa berdearen integrazioan eta barne-sistematizazioan.
  - Euskal kontratazio publikoan, ingurumen-irizpideak txertatzeari dagokionez, % 50eko mailara iristea 2020rako lehenetsi diren produktuen eta zerbitzuen 20 taldetan.



# ZERGATIK DA INTERESGARRIA PROGRAMA HONEKIN BAT EGITEA?

- 1 + Erosketa eta kontratazio publikoetan ingurumen-irizpideak ezartzen badira efizienteagoak izango garelako**, baliabideak modu efizienteagoan erabiliko ditugulako eta herritarren eta gainerako sektoreentzat eredu izango garelako.
- 2 + Garatzen den metodologiak egituratu eta erraztu egiten duelako erakundeetan erosketa eta kontratazio berdea ezartzea.** Programak 20 produktu multzo lehenetsi ditu, eta horietarako guztietarako erosketa berdeko irizpideak prestatu dira, eta irizpide horiek pleguetan edo erosketetan erants daitezke.
- 3 + Kontratazio berdea jada ez delako aukera bat.** Sektore publikoko kontratuen 9/2017 Legeak, bere 1. artikuluan, honako hau ezartzen du: «Kontratazio publiko orotan, zeharkako eta aginduzko eran, irizpide sozial eta ingurumenekoak sartuko dira, betiere kontratuaren objektuarekin zerikusia badu (...)».
- 4 + Programan parte hartzeak sare-testuingurua eskaintzen duelako:** beste administrazio eta erakunde publiko batzuekin ahaleginak bateratzeko eta mezu erkidea osatzeko bidea ematen du, eta, hala, erraztu egiten da euskal enpresen mugikortasuna eta trakzio-ahalmena. Gaur egun, 30 baino gehiago dira programarekin bat egin dutenak.
- 5 + Agenda 2030ean ezarri diren Garapen Jasangarriko Helburuak lortzen laguntzen duelako.** 12. helburuak erosketa berdea planteatzen du, ekoizpen eta kontsumo arduratsuan aurrera egiteko estrategia moduan.
- 6 + Konpromisorako eta lan egiteko esparru koherente bat eskaintzen duelako, herritarrekin eta agente sozioekonomikoekin partekatzeko modukoa.**



# ZER ESKATZEN DU PROGRAMAREKIN BAT EGITEAK? KONPROMISOAK

- Erosketa eta kontratazio publiko berdeari dagozkion ekintzak zuzendu eta koordinatuko dituen **pertsona arduradun bat** izendatzea.
- Erosketa berdearen urteko plana definitzea eta betearaztea programaren barruan lehentasuna eman zaien multzoetan eta erakundearentzat bereziak izango diren beste batzuetan.
- Ingurumenaren aldagaia aztertzea eta eranstea kontratazioko prozeduretan eta erremintetan.
- Erakundeko langileak prestatzea: teknikaria, administraria eta kontu-hartzailetzakoak/kontrataziokoak.
- Euskadiko kontratazio publikoaren plataforman jakinaraztea ingurumen-irizpideak betetzen direla pleguetan (horretarako, ingurumeneko laukitxoa markatu behar da).

# ZER ERRAZTASUN EMATEN DITU? LAGUNTZA-BALIABIDEAK

Ihobe sozietate publikoak, hau da, programaren idazkaritza teknikoak, laguntza-baliabideak eskaintzen ditu:

- Erosketa berdearen urteko plana egiteko **txantiloia**k.
- Erosketetan eta kontratazioetan ingurumen-irizpideak aplikatzeko baliabideak:
  - **Erosketetan eta kontratazioetan ingurumen-irizpideak** aplikatzeko laguntza berezia programan lehentasuna duten multzoetarako: <http://www.ihobe.eus/criterios-ambientales>
  - **Laguntza pertsonalizatuko zerbitzua**, erosketetan eta kontratazioetan ingurumen-irizpideak aplikatzeko prozesuan sortzen diren beharrian guztietarako.
- Zuen erakundeko langileak trebatzeko eta prestatzeko bitartekoak:
  - **Prestakuntza-saioak** eta **gaikako jardunaldiak** urte osoan zehar.
  - Erosketa eta kontratazio berderako **autoprestakuntzarako materiala**.
- **Emaitzak aurkezteko laguntza**: eredia eta jarraipena.



# ZER ESKAINTZEN DU? ABANTAILA BEREIZGARRIAK


Programara biltzeak abantaila bereizgarriak ditu:

- **Laguntza** jasotzea Ihobe sozietate publikoaren aldetik.
- **Pleguetan ingurumen-irizpideak aplikatzeko zerbitzuaren mugarik gabeko laguntza:** programara atxikita ez dauden erakundeek urtean 2 kontsulta bakarrik egin ditzakete.
- Ihobek antolatzen dituen **prestakuntza-ikastaroetan parte hartzeko lehentasuna** atxiki gabe dauden erakundeen aurretik, eskariak eskaintzak baino gehiago izanez gero, eta norberak nahi duen barne-prestakuntza eskatzeko aukera.
- **Informazioa eta ezagutza-trinkoak trukatzeko taldeetan parte hartzeko aukera.**
- Jardunaldietan, jardunbide egokietan, ereduzko pleguetan eta beste material batzuetan **zuen erakundeek izandako arrakastak zabaltzea eta jendaurrean aintzatestea.**

## NOLA BILDU PROGRAMARA?

Erraza da. Hona hemen eman behar diren pausoak:

- 1** **+** Erakundearen programaren ardura izango duen **pertsona izendatu**; pertsona hori, aldi berean, Ihoberekiko harremanetarako erreferentea eta solaskidea izango da.
- 2** **+** Maila politikoan **atxikitze**ko formularioa bete eta **sinatu**:  
[www.ihobe.eus/compra-publica-verde#programa-compra](http://www.ihobe.eus/compra-publica-verde#programa-compra)
- 3** **+** **Formulario hori sinatuta igorri Ihobera**, eta itxaron atxikipena baieztatzen den arte.
- 4** **+** Eta programarekin bat egiteak eskatzen dituen **konpromisoak betetzea** pausoz pauso.



## Jada 32 euskal erakunde publiko bildu dira Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programa 2020ra

- + Udalerri Jasangarrien Euskal Sarea, Udalsarea 21
- + Euskal Irrati Telebista Publikoa, EITB
- + Legazpiko Udala
- + Guardiako Kuadrilla-Arabako Errioxa
- + Energiaren Euskal Erakundea (EEE)
- + Udaltalde 21-Nerbioi Ibaizabal
- + Mutuaia
- + Beterri Kostako Industrialdea
- + Sprilur
- + Deba Bailarako Industrialdea
- + Donostiako Udala
- + Abanto Zierbenako Industrialdea
- + Goierri-Urola Garaiko ESI
- + Urolako Industrialdea, S.A.
- + Goierri Beheko Industrialdea
- + Bilboko Udala
- + Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa
- + Arratiako Industrialdea
- + Bizkaia Sortaldeko Industrialdea
- + Gasteizko Udala
- + URA, Uraren Euskal Agentzia
- + VISESA
- + Itelazpi
- + Arabako Industrialdea
- + Bidasoa Oarsoko Industrialdea, S.A.
- + Tolosaldeko Apattaerreka Industria Lurra, S.A.
- + Barrualde-Galdakao ESI
- + Santa Marina Ospitalea
- + Eibarko Udala
- + Gipuzkoako Foru Aldundia
- + Urdulizko Industrialdea, S.A.
- + Eusko Legebiltzarra

## + NIRE ERAKUNDEAK PROGRAMAREKIN BAT EGITEA NAHI DUT

Ihobe, Programaren idazkaritza teknikoa

Kontakturako pertsona: Gorane Ibarra, arduradun teknikoa

@ gorane.ibarra@ihobe.eus  
compra.verde@ihobe.eus

94 423 07 43

www.ihobe.eus/compra-publica-verde